

K...eta! Kitto!

2017-III-3

1.006 zkia.

SEBASTIAN ALVARO Mendi Jardunaldietan

**KIA EGUNAK
OKASIÓN**

Baldintza bereziak
martxoaren 8tik 11ra

3tik 6 URTERA ARTEKO GARANTIA



Okasión

3tik 6 urtera arteko garanta

NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1
20600 Eibar.
Tel.: 943 70 70 33
www.naiacar.com

Kontsumo konbinatua (l/100 km): 3,6-7,6.
CO₂ emisioak (g/km): 94-177.

martxoak 8
martxoak 9
martxoak 10

eguztena
eguna
barixakua

III. GILDA

LEHIAKETA

SARI BI:

Herritarren saria: **150€**

Tabernetan bozketarako kutxak eta orriak egongo dira.

Epaimahaiaren saria: **150€**

EPAL-MAHAIKIDEAK:

Mireia Alonso - Josu Mugerza - Ruben Etxaniz



AFRIKAN HARITZA

Txirio kale 1



AMETSA

T. Etxebarria 2



ARKUPE

Isasi 2



ASTELEÑA

Estaziño 7



BACOLEKU

Urkizu 11



BAISI

Urkizu 11



BIRJIÑAPE

T. Etxebarria 16



BOULEVARD

Bista Eder 5



CEPA

Urki 29



CHIC

Calbeton 9-11



GURIDI

Untzaga 3



IPUR

Otaola 3



JANTAEDAN

T. Anitaua 20



KONTENT

Ego Gain 6



KOSKOR

Calbeton 6



KULTU

Zuloagatarren 3



LAU BIDE

Ziriako Agirre 1



MAIXA

Calbeton 8



NUEVO

J. Antonio Iturrioz 1



O'JAYS

Untzaga 8



ONGI ETORRI

T. Etxebarria 21



SLOW

Ego Gain 10



SUTONDO ISASI

Isasi 31



SUTONDO LABADEROKUA

Bittor Sarasketa 1



VALLE

Estaziño 16

Bozketan parte hartzen dutenen artean
KANTABRIA jatetxean bi lagunendako menu berezia
zozketatuko dugu.

Animatu zaitetz eta parte hartu!!!



KANTABRIA



Antolatzailea



Euskara Elkarte

Laguntzaileak



Gipuzkoako
Foru Aldundia

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarta@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Deportiboko Mendi Batzordea

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen
aldezkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Eskerrik asko elikagaien karabana posible egiteagatik –

Aurreko zapatuan, otsailaren 25ean, irten zuen Donostiatik Gabonetatik hona Euskadi guztian biltzen ibili diren janari eta higiene produktuen karabanak. Sei trailerrek, ardatz zurruneke kamioi batek, anbulantzia batek eta bi autobusek osatutako konboian bidaiatu dute jende askoren laguntasunari esker Debabarrenean jasotako 4.500 kiloek. Hori dela-eta, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu kanpaina egiteko euren ateak zabaldu dizkiguten denda eta supermerkatuei, ikastetxei, Eibarko Udalari (janariak bildu eta garraiatzeko eskainitako laguntza eskergarengatik), Brigadako langileei (bikain jardun dute), irakasleei, komunikabideei, botikei... eta Eibar, Elgoibar, Mendora eta Debako biztanleei, modu batean edo bestean

4.500 kiloko laguntza jasotzen lagundu diguten guztioi. Bizi dugun sasoi zail hauetan laguntasun keinu horrek balio erantsia du: gastu horrek solidarioago eta gizatiarrago bihurtzen gaitu. Laguntza guzti hori, gainera, hartzailengana, Tindufeko kanpamenduetako saharar errefuxiatuengana, helduko da oso-osorik. Bertako gizarte behartsu eta ahaztuak ez duelako ia inor bere alde egiten duenik eta bizirauteko kanpoko laguntzaren beharra duelako. Hango basamortuak ere ezer gutxi eskaintzen die eta lur antzu hartan itxarotea besterik ez zaie geratzen. Justiziaren zain daude, modu ankerrean 1975ean kanporatuta izan ziren lurretara itzuliko dizkien justiziaren zain.

Eibar-Sahara Elkarte

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LLEUNGARRI.- Jateko ez beste edozein zereginetan erabiltzen den koipea. "Legungarri apur bat egin biharko detsazu burdixari, hainbeste orrua ez deixin egin".

LEUNKERIXA.- Lausengua, zurikeria. "Arrua zanetik, leunkerixia izan ezik ez eban ezer ondo entzutzen".

astean esanak

"Euskal nazioa egiten duena euskara dela diodanean, badakit Euskal Herriko gehiengo handi bat baztertzeko dudala. Horren ondorioz ez da euskara traba modura hartzea, baizik hura gehiago indartzea. Horregatik behar dugu independentzia, baina abertzaletasunik gabeko independentismoa ez dakit zer izan daitekeen. Hori onartzen bada, zergatik ez egin, adibidez, Pirinioetako Errepublikan Independenten bat, Trebiñotik beherako Araba eta Tafallatik beherako Nafarroa kendu, eta Kantabria, Bizkaia eta Gipuzkoa, eta Huesca bilduta?"

Bestalde, feminismo batek egiten duen gogoetarekin ere ez nago ados. "Zerk egiten gaitu euskaldun?" galdetuta, "subordinazioak" erantzuten dute. Euskaldunena bada subordinazio borroka euskarari eta nazioari dagokionean. Baina beste arlo askotan ez gara subordinatuak euskaldunak. Zapaltzaileak gara, esplotatzaileak, kapitalistak... Euskara ez da beste subordinazio mota batzuekin berdintzen, eta ez da berdindu behar. Emakumeak subordinatuak daude, zapalduak, ustiatuak, baina erabat beste fenomeno bat da. Esparru desberdinetako subordinatuak elkartu egin behar dira, baina ez nahastu"

(JOXE AZURMENDI, IDAZLE ETA PENSALARIA)

"Gure inguruko gizartean umeen %30 smartphone bat dute 10 urterekin eta %70ra heltzen da 12 urtekoen kasuan. Bi urterekin gurasoenekin jokatzeko dute eta Youtubeko bideoetara sartzen dira. Umeek bisitatzen dituzten orrialdeen %40 eduki pornografikoak dituzte. 11tik 16 urtera arteko ume eta nerabeen %53 pornografia esplizitua ikusi dute sarean, %38k eskuko ordenagailuan eta %33k mugikorretik. Diotenez, kuriositateak bultzatuta. Euretako %60k etxetik egin ditu lotura horiek. Adin gabekoen %45 sarean sartzen da edukien filtrorik ez dituzten ordenagailutik. Nerabeen %70ak gaez telefonoa piztuta dutela egiten du lo"

(ERRESUMA BATUKO MIDDLESEX-eko UNIBERTSITATEA)



EVA PEREZ DE ALBENIZ

Goazen... betiko lekura

Kolaborazio hau Coliseoan idatzi dut, Go!azen antzerkia ikusten nuen bitartean. Badakizue gure seme-alabak zorutzen dituen telesaila taularatu dutela eta antzokiak bete eta bete ari dela. Han izan naiz ni ere beste hainbat bezela, Basakabi udalekuan gaztetxoek bizitako abenturen lekuko.

Etxean ez dugu telesaila jarraitu, baina youtubeko bideoak behin eta berriz ikusi, abestu eta dantzatu ditugu. Euskal taldeen jatorrizko bertsoak ezagutu eta familian dibertitzeko aukera paregabea eskaini digu Go!azenek. Eta honaino Go!azenen onurak. Antzezlanaren esaldi batean laburtu beharko banu hau esango nuke: "Ezer berririk ez zerumugan". Ordubete eta erditan topiko bat bestearen atzetik josi dute.

Protagonistak neska mutil ederrak, praka motzetan izter mardulak erakusten eta maitasun historia monopolizatzen. Gaiztoa oso gaizto, manga gabeko kamiseta ilunekin eta txima luzeekin.

Potoloa oso jatorra, beti gosez, barregarria. Mutilen artean oilar plantak eta neskak printze urdinaren jirabiran. Goazen esaten diote baina, joan, ez doa inora, betiko lekuan geratzen da. Eta horrela ez diegu gure seme-alabei ezberdin izateko eredurik eskaintzen ezta gauzak era ezberdin batean bizitzeko aukerarik ematen ere. PD: nireak argi dauka Gari bezela izan nahi duela, eta zuen seme-alabek, zein aukeratu dute?

Podemos Ahal Duguk bi moziño aurkeztu ditzu

Eibarko Podemos Ahal Duguk moziño bi aurkeztu ditzu Eibarko udalian martitzenian, "ordezkaritza daken taldiak horren inguruan berba egin eta, onartzia erabagiz gero, aurrera etaratzeko". Moziñuetako batian, elektrizidade, gas eta hidrokarburu enpresari udal zerga ezartzea proposatu dabe. Diñenez, iazko abenduan Epaitegi Gorenaren sententziak dagokion zerga pagatzeko derrigorra ezarri zetsen, toki publikua erabiltziaz gaitik: tensiño motaren arabera, urtitan 3.000 eta 12.000 euro bittartian kobrau leikez kilometro lineal baktzeko eta gasodukto kilometro baktzeko, barriz, 500 / 4.000 euro urteko. Eta beste moziñuan Eibarren kontaminaziño akustikuaren mapia egitteko eskaeria egin dabe, urrixaren 16ko 213/2012 Dekretuak jasotakua beteta.



asteko
29.734
datua

tona hondakin kudeatu zittuan Debabarreneko Mankomunidiak iaz, 2015ian (29.108 tona) baiño gehixago. Gaikako bilketiak hobera egin dau; eskualdeko batzbestekua %42'04-ra aillegau da eta hortik gora dagoz Eibar (%46'57), Elgoibar (%44'63) eta Mallabia (%45'54%).

Zinbili-zanbulu barrixak Ego-Gain eta Urkizun


Ego Gain eta Urkizuko parkietako zinbili-zanbuluak kanbixatzen hasi dira oingo astian. Zerbitzu saillak eskatuta, udaltzaiñak zinbili-zanbuluak erabiliko dittuenen artian gal-

detzen ibilli dira, nahixago dittuen jokuak zeintzuk diran jokitteko eta, horren arabera, parkietarako zinbili-zanbuluak aukeratzeko. Jaso dittuen eritzi eta erantzunak kontuan har-

tu eta gero, Ego Gaiñen 2 eta 8 urte bittarteko umiendako jolasgunia preparauko dabe, oin daguan toki berian, baiña luzeria bikoiztuko dabe; ipiñiko dittuen ziburu-zaura eta bestelako joko guztiak itsas-gaixeri lotutakuak izango dira. Urkizuko parkian, barriz, adiñaren araberrako gunee bi bereiziko dittue: batian 2 eta 6 urte bittartekuendako egokixak diran jokuak egongo dira eta bestian, barriz, 4 eta 12 urte bittartekuak jolasian ibiltzeko modokuak. Parke bixetan joko barrixak ipintzeko biharrak Urbabil 2000 SL enpresariari esleitu jakoz, 90.000 eurotan (BEZ barne), hasieran aurreikusittakua baiño 30.000 euro merkiago. Sei aste eukiko dabez biharrak amaitzeko.



Urkizuko parkeko biharrak hainbat aste iraungo dittue.



Azken urtiotan "Zinku" Elgoibarren bizi bazan be, Eibar jaioerrira lotzen zetsen oindiok bere kuadrillak eta lagun askok.

Joseba Zinkunegi mendi istripuan hil da

BERA ETA IKER JAUSORO MARTITZENIAN AGURTU ZITTUEN ELGOIBARREN EGIN ZIRAN ELIZKIZUNETAN

Martitzenian emon zetsen azken agurra Elgoibarren Joseba Zinkunegi eta Iker Jausoro, domekan Valdezcarayn, San Lorenzo tontorraren inguruan elur-raketak erabillita ibilbide bat egitten ari zirala amilduta hil ziran mendizalieri. Guardia Zibillaren Mendiko Erreskateko Taldeko ki-diak eta Valdezcarayko bihargiñak istripua gertatu zan tokira segiduan juanda be, bik-timak handik etaratzeko helikoptera era-billi bihar izan eben. Joseba Zinkunegi "Zinku" (Eibar, 1966) kazetarixa zan eta ...eta kitto!-ko lehen urtietan (oindiokan hil-labetekarixa zala) komunikabide honetan jardun zeban. Gero ezker abertzaleko kom-unikaziño arduradun izan zan urte as-

kuan, Euskal Herriko Alderdi Komunista-kua (EHAK) eta Sortukua, bestiak beste. 2007ko urrixan Espaiñiako Poliziak Segur-an Batasunaren kontra hasittako operazi-ñuaren harira, 2008ko otsaillaren 11n atxi-lotu eben Batasuna, EHAK eta EAE-ANV-ko beste hamahiru lagunekin batera, eta 50.000 euroko bermia ordainduta 2010eko otsaillian laga eben libre, politi-kan jarduteko debekuarekin. 'Jon Anza. ¿El último crimen de estado?' izeneko li-burua kaleratu zuen Joseba Zinkunegik, Juan Jose Petrikorenarekin (Andoain, 1963) batera, 2011n. Iker Jausorok (Oña-ti, 1968), bestalde, IMHn egitten eban biharra.

autuan

AZOKARAKO ERROPAK BATZEN

Eibarko Gure Esku Dago taldiak, diru pixka bat lortzeko asmuarekin, martxuaren 18xan 2. eskuko erropen azokia ipintzeko asmua dauka eta horretarako erropak jasoko dittue. Lagundu nahi dabenak datorren asteko eguenian (hillak 9xan) izango dau erropak emoteko aukeria, 19.00etatik 20.30xetara Deporrera juanda.



ERREFUXIATUEN ALDE

Amnistia Internacional erakundiak antolatuta, bixar 12:00xetarako ekitaldixa egingo da Untzagan. Asmua Eibarrek harrera-herrixa izateko dakan konpromisua atzera be azaltzia eta oin arte lortu danaren barri emotia da. Erakundeko ordezkariak eta alkatiak ez eze, errefuxiatu batzuk berba egittia dago aurreikusitta. Horrekin batera siñadurak batzen jardungo dabe.

Funeraria-Ehorztetxe Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi

**KOMERTZIAL
TEKNIKARIA
behar da**

murrplastik

- / Erakutsitako balioaren arabera **BALDINTZA EKONOMIKOAK.** Enpresako AUTOA.
- / EUSKERA ETA INGELESA ondo jakitea baloratuko da.

BIDALI CURRICULUM-a: quintana@murrplastik.es

www.kolorlan.com **667 54 89 16**

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

Zahar eta menpekotasuna dakenendako otordu zerbitzua ipiñi dabe martxan

Udaleko Gizartekintza saillak, herriko jubilau etxiekien alkarlanian, 65 urtetik gorakuendako eta menpekotasunen bat dakenendako zerbitzu barrixa ipiñi dau martxan, nahi dabeneri bazkarixa eta afarixa etxeraiño eruateko. Ekime-nak EH Bilduk eta PSE-EEk iazko udal aurrekontuan alkarrekin sartutako zu-zenketiari erantzuten detsa eta Gureak

Zerbitzuak enpresakuak eukiko dabe zerbitzuaren arduria. Nahi dabena bazkarixa eta afarixa etxian jasotzeko aukeria eukiko dau, 8 bat euro pagauta (bal-dintza bakarra astian gitxienez bost baz-kari edo afari eskatzia da). Edozelan be, interesa dakenak zerbitzurako izena emon biharko dabe. Jendiari zerbitzua- ren inguruko informaziñua emoteko as- muarekin hainbat hitzaldi antolatu dittue jubilau etxietan: aste honetan Ipuruakuan eta Beheko Tokin egon dira azalpenak emoten eta datorren astian, barriz, Untza- gan (eguztzenian, 17:00etan) eta Urkin (eguenian, 17:30xe- tan) egingo dabe berba.



8 bat euro ordainduta bazkarixa edo afarixa jasotzeko aukeria dago.

Emakumien Egunerako ekitaldixak

Martxuaren 8xan gogoratuko dan Emakumien Egunaren harira hillebete osora- ko programia antolatu dabe Andretxea-Berdintasun Zerbitzuak, ...eta kitto! Euska- ra Elkarteak eta Arrate Kultur Elkarteak, Emakumien Mahaixaren laguntasunarekin, tartian datorren eguztzenian egingo diran ekitaldixak: eguardixan kartel lehiaketako irabazliari sarixa banatu eta Portalean erakusketia zabaltziaz gain, izena emon daben andrak alkarrekin bazkalduko dabe eta arratsaldian, 19:30xetan "flashmoba" egingo da Untzagan eta, jarraixan, 20:00etan alkarrataratzia deittu dabe.

Bakartxo Tejeriak hitzaldixa emon eban astelehenian Batzokixan

Aurreko asteko astelehenian Bakartxo Tejeria Eusko Legebil- tzarreko presidentia Eibarren egon zan, Batzokixan hitzaldixa emo- ten eta, entzutera juandakueri azaldutakuen artian, bestiak beste, Legebiltzarrian egitten daben biharrari lotutako gaixak eta kalida- dezko enplegua sortzeko premiñaren ingurukuak aittatu zittuan.



Logotipo lehiaketia antolatu dabe dendarixak

Eibarko Dendarien Elkarteak logotipo lehiaketia antolatu dau: lehiaketara aurkezten diran logotipuak "Nik Eiba- rren erosten dot" / "Yo compro en Eibar" esaldixa euki biharko dabe idatzitta (hiz- kuntza bixetan), 30x30 zentimetroko neurrixa eta asoceibar@gmail.com hel- bidera bialdu biharko dira, egilliaren da- tuekin batera. Nahi daben jende guztiak izango dau parte hartzeko aukeria. Mar- txuaren 6tik apirilaren 6ra bittartian ja- soko dittue lanak eta irabazliarendako sarixa 300 eurokoa izango da.



SINDA GRANDE NOVOA


2017ko otsailaren 24 hil zen, 87 urterekin

"Maitagarria izan zara eta izango zara ezagutu zintugun guztiondako. Haundia, zure abizenak zioen moduan. Eskerrik asko une hauetan lagundu gaituzuen guztioi"

Martxoaren 5ean (domeka) IRTEERA MEZA egingo da 12:00etan San Andres parrokan.

ETXEKOAK

TUTULUMENDI



IDURRE
IRIONDO

Primeran ospatu eben San Balentin Untzagako jubilau etxian

Otsailaren 14an San Balentin eguna ospatzeko hainbat ekitaldi egin zituen Untzagako jubilau etxian. Ezkondu zirala 64 urte bete dirala eta, omenaldixa egin zetsen Maria Elorza eta Julian Uraini. Horrekin batera, erretratuak



etaratzeko txoko bat preparau eben eta bazkide asko han argazkixa egittera animau ziran. Gaiñera, ekitaldixak zuzeneko musikiarekin lagundu zittuan El Bohemiok eta, maiteminduen eguna agurtzeko dantzaldixa be egin eben.



Julian Urain eta Maria Elorza izan ziran omenduak.

Bihargiñak Ireki ekimenarekin bat

Preso eta iheslarixak etxeratze bidian jartzia bultzatzeko asmuarekin, enpresetako bihargiñak be Ireki dinamikarekin bat egitten dihardue eta Debabarreneko hainbat taillar eta enpresatan ekimenaren aldeko siñadurak biltzen hasitta dagoz. Ireki ekimenaren harira ezarri dittuen helburuak, bestiak beste, 150.000 siñadura lortzia eta lan munduaren agendan gaixa txertatzia dira eta ekaiñaren 17xan, Ireki dina-



mikak emondakuaz adieraztiarekin batera, bihargiñak kalera urtetzeko asmua dakela aurreratu dabe, "preso, iheslari eta deportatuak etxerako bidian jartzeko". Bixen bi-

ttartian, bixar ekimenaren aldeko siñadurak batzeko mahaixa ipiñiko dabe Eibarren, 11:30xetatik 14:00xetara Untzagan eta 15:00xetatik 19:30xetara, barriz, Ipuruan.



JOSEBA ZINKUNEGI GARMENDIA

"ERREZIL"

(1966-IV-2 / 2017-II-26)

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

BETI IZANGO HAIZ GUREKIN.

HIRE KOADRILA ETA AMAÑAKO LAGUNAK



ONCEk Arragueta kalean duen bulegoa lasai dago arratsaldeko lehen orduetan. Miren Valero Eibarko ONCEko zuzendariari elkarrizketa egiteko, primeran, baina ez du erakundearen egunerokoa islatzen. ONCE "gauza asko" da, zuzendariak dioenez, eta kupoiak saltzeaz gain, denetarikoz zerbitzuak eskaintzen die itsu zein bestelako desgaitasunak dituztenei. Horren adibide da berriki itsu-itsuan egin den afaria, enpatia lantzeko jarduera ezin hobea.

MIREN VALERO

(Eibarko ONCEko zuzendaria):

"Gizartea gure tokian jarri beharko litzateke gure arazoak ulertzeko"

– *Beti ikusi izan dugu inguruan, baina zer da zehazki ONCE?*

ONCE gauza asko da: itsuentzako eta, orain dela urte batzuetatik, bestelako desgaituentzako lan irteera; zerbitzu prestazioak ematen dituen erakundea...

– *Nola sortu zen ONCE?*

1938ko abenduaren 13an sortu zen, Gerra Zibilean, eta lehen zozketa 1939an egin zen. Ikusi dugun bezala, hazten joan da urteak aurrera joan ahala. Hasieran nahiko bizi-kalitate txarra zuten itsuentzako lan irteera zen, ezin zutelako beste inon lan egin, baina apurka-apurka, ONCEk egitura oso handia osatu du estatu mailan.

– *Eta Eibarren nolako bilakera izan du?*

Denbora gutxi daramat Eibarren, beraz, ez dut den-dena ondo ezagutzen. Ez dakit zehazki zein urtetatik dagoen ONCE Eibarren, baina prentsa bulegoa Aranbarri abizeneko ordezkariaren etxean zegoela, beraz, badira urteak. 40 baino gehiago bai, ziur, gurekin lane-

an dabilen Idoia Labianok urte horiek daramatzalako bertan lanean. Gero Errebaleko lokal batera pasa zen, 15. zenbakiko lehen pisuan, eta 1992an etorri zen Arragueta.

– *Zein zerbitzu eskaintzen ditu ONCEk Eibarren?*

Eibarko moduko agentziek alde onak eta txarrak dituzte. Alde txarra da, adibidez, biztanle gehiago bizi diren tokietan gauza gehiago egiten direla eta oinarriko atentziorako ekipoak kontzentratzen direla. Eibarren, jende berriak izena ematen badu eta bere egoeratik laguntza behar duela erabakitzen bada, nik errehabilitazio teknikariarekin kontaktuan jartzen dut. Honek afiliatuaren beharrak aztertuko ditu eta, horren arabera, orientazioa emango dio, makilarekin ibiltzen irakatsiko dio, diruarekin maneiatzen, teknologia berriekin ibiltzen, braillea irakur-



tzen... Gainera, pertsona bat itsu geratu bada eta ez badu onartzen, gogorra izaten da, eta prozesu horretan lagunduko zaie atentzio psikologikoa emanez.

– *Eibarko agentziak eibartarrei bakarrik ematen die zerbitzua ala baita inguruko herrikoei ere?*

2012ra arte Debabarreneko herri guztiak batzen ziren Eibarko agentzian, baina urte hartatik aurrera Durangaldeko eta Debagoienakoekin egin du bat. Ondorioz, Eibarko agentziak kupoi saltzaile asko dauka, 25etik 60ra ingurura pasatuz. Eibarren zehazki 10 saltzaile daude. Afiliatuak, bestetik, 80 bat dira.

– *Afiliatu izatetik kupoiak saltzera pasatzeko zein pausu eman behar dira?*

ONCEra afiliatuta badaude eta minimo bisuala badaukate, prestakuntza jaso eta saltzaile

izatera pasatzen dira. %33eko desgaitasuna dutenak ere, hona etorri eta profil komertzial egokia badaukate, prestakuntza jaso eta kupoi saltzaile izan daitezke.

– *Zer egin behar du ONCEn afiliatu nahi duenak?*

Baliteke arazo bisual larria duen baten batek elkarrizketa hau irakurtzea, baina ONCEn sartzetako pausua ematen ez ausartzea. Horrela bada, nik esango nieke, gutxienez, etortzeagatik ez dutela ezer galduko. Nik arazoak izan nituen, lotsa ematen zidan gutxi ikusten nuela aitortzea, baina gero abantailak besterik ez ditut jaso hemen. ONCEk itsu eta desgaituen bizi-kalitatea hobetzen du.

– *Auzi hau dela-eta, gizartea gehiago sentsibilizatu behar dela pentsatzen duzu?*

Gu hor gara adierazten saiatzen gara eta,aldi berean, baita emakumeak sentsibilizatzen ere. Eibarren ondo erantzuten dute arazo horien aurrean, baina askotan gizartea gure tokian jarri beharko litzateke gure arazoak ulertzeko.

"Abantailak besterik ez ditut jaso ONCEn. Gizarteak ere badu zer eskertu, itsu eta desgaituen bizi-kalitatea hobetzen baitu"

Maiatzaren 7an Debabarrenean egingo den herri galdeketari zilegitasuna emateko behar diren sinadurak bildu eta gero, Eibarko Gure Esku Dago herri ekimenak hurrengo erronkari heldu dio: egun horretan egingo den galdera adostu behar da eta, beste herri batzuetan egindakoaren bidetik, horretarako bilera deitu dute biharko, 10:00etan Arrate Kultur Elkartearen. Bilera herritar guztientzat zabalik egingo da eta, galdera adosten laguntzeko, Zelai Nikolas Gure Esku Dago-ren bozeramailea eta Mario Zubiaga EHU-ko irakaslea gonbidatu dituzte, beste toki batzuetan bezala gidari-lana egiteko.



– Bihar egingo den saioa nolakoa izango da? Nola antolatuko duzue bilera?

Gure Esku Dago ekimena abiatu zenetik, normaltasuna konkistatzen ari gara. Guk esaten dugun moduan, lokatzen atara gara gaur egun gauden egoerara ailegatu arte. Prozesu horrek denok elkarrekin aritzea, ezberdin pentsatzen dugunak batera aritzea eskatzen du, horrela demokrazian sakondu ahal izateko. Hori abiapuntua izanik, beste ezertan hasi aurretik hainbat kontzeptu azalduko dizkiegu bilerara joandakoei: erabakitze eskubidea zer den, nazioartean eskubide hori nola planteatzen den, lege aldetik nola dagoen... Horrekin batera, bakoitzaren beldurrik besteekin konpartitzeko eta beste hainbat kontu aztertze aukera emango du bilerak. Galderaren inguruan, berriz, helburua ahalik eta partehartzerik handiena ekarriko duen galdera asmatzea dela argi azaltzen ahailegintzen gara. Izan ere, bakoitzak zer galdetuko lukeen baino, garrantzitsuagoa da beste batzuentzat erakargarria izan daitekeena pentsatzen ahailegintzea, horrela ahalik eta jende gehien erakartzea eta parte hartzea lortzeko. Bes-

talde, galdetzen denaren inguruko kudeaketa ez dagokigu guri, politikoei baino. Hala ere, badugu guk lortu nahi dugun horretara ailegatzeko baldintzak sortzeko ahalmena eta horretan gabilta. Gure bileretan debekatuta dago haserretzea, hori da gure arauetako bat. Gainera, haserretzerik ez dagoenez, beste gaitasun batzuk landu behar ditugu derrigorrez. Horregatik, ibili garen tokietan saio bi egin ditugu, bilera astuna ez izateko. Orain arte egingdako bileretatik jende oso gustora irten da, saio pedagogikoak dira eta, esaten dutenez, bilerara joan eta gero dena hobeto ulertzen dute.

– Beraz, galdera adostea ondoren etorriko da...

Esandako horiek guztiak egin eta gero, orduan galderari heltzeko moduan izango gara, puzzlea osatzen joateko prest. Horretarako, guk hiru korapilo planteatzen ditugu bileretan: lehenik eta behin sujeta aukeratu behar da, hau da, galdegaia nor izango den. Herritarren galdeketa izatea nahi badugu, "herritar" horien ezauzgarriak azaldu beharko ditugu. Nor deituko dugu? Eta nola deituko ditugu? Ondo-

ren, zer galdetu nahi dugun pentsatu beharko da, hau da, zein da lortu nahi dugun forma politikoa...

– Eta maiatzaren 7ko galdeketa nolakoa izango da? Ohiko hauteskunde egunen parekoa?

Bai, oso antzerakoa izango da: 16 urte-tik gorakoek izango dute bozkatzeko aukera, horrekin batera baldintza bakarra errolatuta egotea izango da. Guk ez dugu zentsorik erabiliko eta, beraz, aipatutako bi horiek betetzen dituen edonork izango du botoa emateko aukera: etorkinak, gazteak, sentsibiltate politiko ezberdina dutenak...

– Eta galdeketa egin eta gero zein izango da hurrengo pausoa?

Aurten 110 herritan baino gehiagotan egingo dira herri galdeketak eta horiek eskualdeka ariketak lantzeko aukera paregabea emango digute. Galdeketeekin batera, erabakitze eskubideari buruzko itun herritarra lantzen hasi gara, parte-hartze prozesu baten bidez, eta datorren ekainaren 10ean Bilbon aurkeztuko dugu, egun horretarako deituko dugun mobilizazio jendetsu batean.



Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko JANTZIAK

ume eta gazte
Kopina
moda

f kopinamoda
San Agustin, 3
943 204181

B. Sarasketa, 1 ac **943 12 82 31**

Kafea, opilak, ogia,
pintxoak, ardoak...

Gozatu **EIBARKO**
PREZIORIK ONENEKIN!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTLINDO

LABADEROKUA Egunero **06.00**etatik aurrera

Gipuzkoako hainbat ume eta nerabe ezin dira euren familiekin bizi. Arrazoiak asko dira eta egoerak desberdinak, baina euren premia nagusia zaindu eta hezituko dituzten familia edukitzea da. Ume hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean bizi dira eta euren etxeetako berotasuna eskaini die Ander Maiora, eta Ainhoa Elizondo eta Iñaki Carrasco eibartarrek. Harrera Familia dira eta pozik daude esperientziarekin.

Etxeko berotasuna haurrentzako irtenbide

Ander Maiorari bizitza zeharo aldatu zaio azken urte eta erdian. Bakarrik bizi izatek, bi haurren kargu izatera pasa da. *"Ume baten hezkuntzan parte hartu nahi nuela argi neukan"*, dio. Aukera ezberdinak aztertu eta gero, Harrera Familiaren bitartez umeari mesede egingo ziola pentsatu zuen, *"eta niri ere asko erakutsiko zidala"*.

Ibizara oporretara joan baino egun batzuk lehenago jaso zuen deia. *"Uztailaren 13a zen eta abuztuaren erdialderako etxean neukan haurra"*. 6 urte zituen sasoi hartan umeak eta bere kasuan prozesua azkartu egin zen, *"beste familia batera zoalako eta hauek atzera bota zirelako"*. Oporretan joan barik geratu zen Ander, baina beste abentura bat hasi zuen. Abentura ona, gozoa, *"baina baita gogorra ere"*. Edozelan ere,

epe luzerako harrera emango dio Anderrek umeari, beraz, elkarrekin egingo duten bidea hasi besterik ez da egin.

Gabon hauetan beste dei bat jaso zuen Anderrek. Urte eta hiru hilabeteko haur batek larrialdiko familia behar zuen hilabete batzuetarako, *"seirako gehienez, eta nirekin daukat"*. Gipuzkoako Foru Aldundiak haurrari familia egokia bilatu arte egongo da Anderrekin, *"baina gertatu ahal da familia egokirik ez aurkitzea eta, beraz, nirekin geratzea, nik horrela nahi dudalako"*.

Alabentzat naturala

Ainhoa Elizondo Iñaki Carrasco senarrekin bizi da eta bi alaba biologiko dituzte. Etxean, hala ere, bost pertsona bizi dira. Orain dela sei urte, *"nire alabek 3 eta 5 urte zituztenean"*, urte eta erdiko umeari ha-

rre egin zioten etxean eta elkarrekin bizi dira harrezkero. *"Oso ondo konpontzen gara denon artean"*, dio Ainhoak, *"baina batzuetan gogorra ere bada, ume horiek ezberdinak direlako, bi familia dituztelako"*.

Ainhoaren kasuan bere senarra izan zen Harrera Familia izateko pausua eman zuena. *"Berari aita izatea asko gustatzen zitzaien eta haur hauei familia bat eman nahi zien"*. Aukera hau ondo ikusi zuen Ainhoak ere eta Harrera Familia izateko prozesuan sartu ziren. *"Proba asko egiten dizkizute!"*, Ainhoaren berbetan, *"eta zorrotzak dira, galdeketa oso sakonak egiten dizkizute"*.

Haurra etxera etorriko zela jabetu zenean urduri jarri zen Ainhoa. *"Nolakoa izango da? Nola etorriko da? Zer gertatuko zitzaien?"*, galdetzen dion bere buruari, *"bai-*

Ainhoa Elizondo eta Ander Maiora.
Ekhi Belar



KORO ANGOITIA GOIKOETXEA

(II. urteurrena: 2015-III-3)

*"Beti izango zaitugu gure bihotzetan.
ASKO MAITE ZAITUGU"*

ETXEKOEK

JAKINGARRIAK

ZEIN UME HAR DAITEKE HARRERAN? Profil oso ezberdinak dira: haur zein nerabe, banakako zein anai-arrebak...

ZER DA HARRERA FAMILIA IZATEA? Haur edo nerabe bati laguntzeko modua, zure familian hartuta.

HARRERA FAMILIA MOTAK?

- Larrialdikoa (gehienez 6 hilabete).
- Aldi baterako (gehienez 2 urte).
- Iraunkorra (iraupen mugagabea).
- Espezializatua.

NOR IZAN DAITEKE HARRERA FAMILIA? Edozein pertsona edo familia.

ETA JATORRIZKO FAMILIA? Haur edo nerabearentzako mesederako bada, familiaren bisitak onartuko dira.

LAGUNTZA IZANGO DUT? BETI.

ETA ZERBAIT GAIZKI BADOA? Laguntza jasoko dute Harrera Familiek, eta bestela ere profesionalak behar diren neurrian.

ZER GERTATZEN DA 18 URTE EGITEN DITUENEAN? Nerabeak erabakiko du Harrera Familiarekin jarraituko duen, etxetik irtengo den edo jatorrizko familiarekin bueltatuko den.

NOLA IZANGO LITZATEKE PROZESUA?

- 1- Prestakuntza.
- 2- Eskaera ofiziala eta dokumentazio aurkezpena.
- 3- Elkarrizketa pertsonalak.
- 4- Proba psikoteknikoak.
- 5- Elkarrizketak etxean.
- 6- Azken txostena.

Harremanetarako: 943 11 25 22 / familiaharrera@gipuzkoa.eus
Gizarte Politikako Departamentua. Familia Harrerako eta Adopzioko Atala
Txara 2 Eraikina. Zarategi pasealekua, 99 / 20015 Donostia

na oso ondo! Txarrean ipintzen zaituzte aurretik eta ez da hainbesterako". Bere alabek ere oso harrera ona egin zioten haurrari, "modu naturalean hartu zuten".

Familia biologikoarekin harreman ona

Harrera Familiek ez dute haurren familia biologikoarekin harreman zuzena izaten, "bitartekariak daude", baina alde bien arteko harremana ona izan behar dela diote Ander eta Ainhoak. "Talkarik badago, umeak igarri egiten du eta dena pikutara joango litzateke", dio Anderrek. Gainera, "eurak beti familia biologikoaren alde jarriko dira".

Bisita erregimenaren arabera, haurrek euren familia biologikoa bisitatzen dute. "Nirekin dagoen umearentzat oso garrantzitsuak dira bilera hauek", azaltzen du Ainhoak, "oso harreman ona daukate".

Anderrek aipatzen du Aldundiak ere garrantzi handia ematen diela bisitei, "haurrek familia eredu egokia eta hain egokia ez dena ezberdintzeko". Gainera, "eurek egunen batean familia edukitzea erabakitzen badute, eredu on bat erreproduzitzeko".

Umeak ondorio, ez arazo

Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean dauden haur eta nerabeak dira Harrera Familiek behar dituztenak. Hainbat arrazoi-rengatik euren familiekin bizi ezin diren haur eta nerabeak dira. Gaur egun 60 bat haur daude familia baten beharrean, beraz, Aldundiak Benetako Besarkadak kanpaina jarri du martxan familia gehiago lortzeko.

Anderren ustez normala da familia beharra duten umeen kopurua haztea. "Gizarte gero eta okerrago dago". Baina hurrengo kontua argi uzten du: "Umeak ez dira arazoa, ondorioa dira". Bere iritziz, "abortuaren gainean informazio gehiago, drogen arazoan laguntza gehiago eta beste arreta prebentibo gehiago bat egongo balira, ez lirateke hainbeste ume hain egoera txarrean egongo".

Harrera, aspaldiko kontua

Familien faltaren aldean, Ainhoak uste du 'txipa' aldatu behar dela. "Umea da, bere familia biologikoa dauka eta orain bigarren bat, gu". Gizartean ume hauek irudi txarra dutela dio, "baina ez da horrela". Bere iri-

tiz, "segurtasuna behar dute eta maitatuak sentitu, ulertu egin behar dituzu".

Anderren ustetan, "herrian beti egon da familien harreraren kontu hau", eta, horrengatik, pertsona nagusiek hobeto ulertzen dituztela kasu hauek. "Eurei antzeko kasuak gertatu zaizkie ingurua, nahiz eta hain ofiziala ez izan". Adibide bat jartzen du hori azaltzeko. "Baserrri batean ama hiltzen bazen, haurrak alboko baserrira joaten ziren bizitzera; edo osaba ezin bazen bere umeen kargu egin, guregana etortzen ziren".

Gazteekin, ordea, ez da berdina gertatzen euren iritziz. "'Eta kentzen badizute?', galdetzen didate", aipatzen du Ainhoak. "Jabetzaren kontua daukagu buruan sartuta eta hori akatsa da", dio Anderrek, "umea ez da inorena!". "Ah, eta ez gara heroiak!", argitzen du Ainhoak, "umeak laguntza behar du eta nik laguntza hori eskaini ahal diot, beraz, aurrera". Anderrek ere bide beretik erantzuten du. "Baliabideak eta pazientzia badituzu, ez da aparteko zeri". Ez da zaila izango, baina haur eta nerabe hauei behar duten familia ematen die baliabide eta pazientzia horiek.

CARMELO PAGUEY ABAITUA

II. urteurrena: 2015/03/01

"Betiko izango zara gure oroimenean,
BETIKO GUREKIN".

ZURE FAMILIA





Nahia Fernandez (Bernedon begiralea)

«Begiraleak boluntarioak gara eta ilusioak mugiarazten gaitu»

Nahia Fernandez eibartarra Bernedoko begiralea da. Magisteritza ikasi zuen ingelesarekin eta haur hezkuntza ere egin zuen. 22 urte ditu eta begirale titulua orain dela 5 urte atera zuen. Euskal Udalekuetan 4 urte daramatza. Euskal Udalekuak jatorriz Ikastolen Elkartearekin batera sortu ziren, 60. hamarkada inguruan. Klandestinitatean ikasten zuten haur horiei udan jarraipena egiteko asmoz. Egun 3 etxe daude: Bernedo, Goñi eta Abaigar. Izena emateko epea martxoaren 6an hasten da, udalekuak.eus webgunean.



– Zertan desberdintzen dira Euskal Udalekuak bestelako Udalekuengandik?

Lehenengo esan beharrekoa da Euskal Udalekuak begirale boluntarioek bultzatzen dituztela. Guk askatasun osoa daukagu nahi duguna egiteko, ez gaude enpresa baten interesen menpe. Eta Euskal Udalekuen helburu nagusia euskara bultzatzea da; errealitate desberdinetako hurrak bildu eta euskararen inguruan hausnarketa egiten dugu, euskaraz bizi daitekeela ikusi, izan ere, Zarauzko ume bat ohituta egon daiteke euskaraz bizitzeko, baina agian Tuterako ume bat ez. Hala ere, beste balore batzuk ere lantzen ditugu 3 etxeetan: hezikidetzan oinarritutako udalekuak dira, kulturartekotasuna bultzatzen da jolas desberdinen bitartez, natura, ingurumena, birziklapena eta kontsumo arduratsua ere lantzen dira eta bukatzeko bizikidetzari garrantzia handia ematen diogu.

– Nolako ekintzak egiten dituzue?

laz udaleku parte-hartzaileen gisako zerbait egiten hasi ginen eta azken txandako nerabeei aukera

eman genien euren proposamenak aurrera eramateko. Adibide bezala euskal musika talde bat ekar zezaketela jarri genien, eta horretarako zein prozesu jarraitu beharko luketen erakutsi genien. Hortik aurrera euren egitasmoak eta planteamenduak egitera animatu genituen. Asanbladetan biltzen ziren, ideak adostu eta modu honetan zerbait antolatzeko prozesu osoa nola egin ikasi zuten. Honez gain, normalean egun bakoitzeko gai bat lantzen dugu. Esaterako euskal kultura oinarri izanda, pare bat egun euskal herriko historia lantzeko hartzen ditugu eta jolasen bitartez edo antzerkien bitartez edukiak errazago barnertzen dira. Beste egun bat kultura desberdinak ikasteko izaten da eta talde bakoitzak tokatu zaion kulturako ohiturak jarraituz pasatzen du eguna.

– Nola kudeatzen dituzue udalekuak?

Urte guztian zehar biltzen gara, izan ere hamabostaldiko programazioaz gain, kontu ugari daude egiteko: konponketak, obrak, garbiketak, ... lan asko egoten da eta begiraleen ardurapean dago dena.



● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM



LORADENDA

– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Bidezko merkataritzaren sentsibilizazio kanpaina

Eibartarrak bidezko merkataritzaren inguruan sentsibilizatzeko hainbat ekintza antolatu ditu La Salle ikastetxeak martxoaren 6tik 17ra. Martxoaren 8 eta 10ean bi tailer eskainiko dituzte La Salleko zentro bietan, eta bigarren astean Udalari esker garatutako proiektuen berri emango dute.

Idoia Azpilikueta PROEGA Fundazioaren (La Salleren GKE) arduradunak, Idoia Sarasqueta Gizartekintza zinegotziak eta Joseba Agirrezabalaga La Salleko irakasleak bidezko merkataritzaren inguruan ikasleak zein herritarrek sentsibilizatzeko helburuarekin antolatutako ekintzak aurkeztu zituzten atzo.

Zati bitan banatu dute kontzientziazio programa. Lehen astean, martxoaren 6tik 17ra, tailer bi egingo dira La Salleren ikastetxe bietan. Lehenengo martxoaren 8an egingo da 17:00etatik 18:00etara, Isasin, eta helduei zuzenduta egongo da. Bigarrena, bestetik, Azitainen egingo da hilaren 10ean, 19:00etatik 20:00etara, eta aisialdiko monitorei egongo da bideratuta. Tailerretan izena emateko proega@lasalle.es helbidera mezu bidali behar da.

Tailerrez gain, bidezko kontsumoaren eta bidezko merkataritzaren inguruan lan egingo dute La Salle ikastetxeetan. *"Ikasleak, hein batean, euren kontsumitzeko moduagatik arduratu bat dutela jakin dezatela nahi dugu"*, adierazi zuen Azpilikuetak, *"indarra egin dezakegu eurak arduradunak izan daitezen"*.

Agirrezabalaga irakaslearen iritziz, bidezko merkataritza eta elkartasun kontuak entzutera ohituta daude gazteak, *"baina urruti geratzen zaie guzti hori"*. Kanpaina honez bitartez, beraz, *"kontu hauek euren egu-*

Zati bitan banatu dute kontzientziazio programa

Tailerretan izena emateko: proega@lasalle.es



Morrás, Agirrezabalaga, Azpilikueta eta Sarasqueta atzo Portalean egindako aurkezpenean. Ekhi Belar

nerokora iristen zaizkie", gehitu zuen. *"Europa merkea hain merkea zergatik den ikusten dute, horren atzean dagoena. Gogoeta eginarazten die"*.

Proiektua ezagutarazi

Bigarren astean, PROEGAK Udalaren laguntzarekin garatutako proiektuen berri emango zaie herritarrei. *"Argentina eta Paraguaiako hainbat ikastetxetan alfabetatze zientifikoa eta*

kultura maila handiagotzeko helburuarekin gabiltza lanean", aipatu zuen Azpilikuetak, *"hezkontza kalitatea hobetzeko, azken finean"*.

Sarasquetak, bere aldetik, honelako proiektuek izan behar duten oihartzunaren garrantzia azpimarratu zuen. *"Eibarko gazteek, orokorrean, erraztasunak dituzte, baina ez dira jabetzen beste gazte askok ez dardela egoera berean"*.

Iñaki Goikoetxea Izeta

(1970-11-26 / 2017-11-22)

Maitasunak batuko gaitu, oroitzapenetan alkartuko gara. Sin, Sinsan, Murrai, maittia... IÑAKI, ESKERRIK ASKO!

Familiaren izenean, gure eskerrik beroenak nahigabeen lagundu diguzuen guztioi



EMILIO URIZAR GOXENCIA

2. urteurrena (2015/III/3)

*Beti gure bihotzean
Maite zaitugu*

ETXEKOEK



PLAY-back





KALDEREROAK



HIL DIRA ARATOSTEAK...
...DATORREN URTERA ARTE



SARDINAREN



ENTIERRA

Dieta hitzak zer esan nahi du?

Dieta egunean zehar jaten dugun janarien edo elikagaien kantitatea da. Egiten dugun dieta egiten dugula, orekatua izan behar du osasuntsu mantentzeko.

Sarritan entzuten dugu kalean norbaitek esaten duela: -Dieta egiten hasi naiz edo dietan jarri naiz.... Zer esan nahi du horrekin?. Argaltzeko dieta bat egiten ari dela hain zuzen ere. Beraz, gaizki erabiltzen da dieta hitza kasu horretan. Zer dieta egiten ari den azaldu beharko du ulertu diezaiozun. Bestela elikagaiak jaten dituela bakarrik adierazten digu.

Lehen azaldutako dietaren esanahiaren haria hartuz, esan dezakegu dieta mota asko daudela.

Batzuk aipatzearen: dieta mediterranea, landare dieta edo begetarianoa, dieta makrobiotikoa, dieta paleolitikoa, dieta beganoa, dieta ayurvedikoa, argaltzeko dieta, gizontzeko dieta....

Eta zein da dieta ideala? Ez dago denontzat dieta ideala izango denik. Baizik eta aukera asko pertsona bakoitzarentzat.



Pertsona bakoitza berezia da, bakoitzak ikusi behar du zer dieta tipo datorkion hobetoen. Norberaren dieta egokia aukeratzeko garaian kontuan izaten diren faktoreetako batzuk, siniskerak, erlijioa edo bizitzeko era.... ditu. Bestalde, zein dieta mota egingo den aukeratu ondoren, dieta hori pertsona bakoitzari egokitu beharra egoten da. Horretarako kontuan hartu behar dira besteak beste: adina, sexua, lanbide edo aktibitatea, bizi-lekua, urtaroa.... Horregatik ez dago dieta konkretua, denontzat balioko duena. Bestalde, esan beharra dago ez dela pertsona dietara egokitu behar alderantziz baizik: dieta pertsonara egokitu behar da.

Argi dagoena, aukeratzan den dieta bata edo bestea dela, hau derrigorrez orekatua izan behar dela osasuntsu mantentzeko. Hau da, dieta horrek ezinbestekoak diren mantentugaiak euren kopuruan izan behar dituela. Beharrezkoenak diren mantentugaiak: proteinak, koipeak, karbohidratoak, bitaminak eta mineralak



jaione yeregi

TEKNIKARIA DIETETIKA ETA NUTRIZIOAN

dira. Mantentugaiak animalia erreinutik edo landare erreinukoak izan daitezke.

Bestalde, argitu nahi ditudan bi kontzeptu, jangai eta elikagai hitzen esanahia da. Jangai hitzak, izakiok jateko gai den zerbaiti esaten zaio. Honek ez du esan nahi gure gorputzarentzat ona izango denik, soilik irentsi eta metabolizatzeke gai garen edozer izan daiteke. Bestalde, elikagai hitzak, izakiok jan eta gure gorputzari era bateko onura edo behintzat mantentugairen baten aportazioa eskaintzen digula esan nahi du.

Elikadurak erlazio estua dauka gure osasunarekin. Osasuna berreskuratzeko, sarritan nahikoa izaten da egiten ari garen dieta aldatzea osasun hobekuntzak berehala nabaritzeko. Hau da, sarritan: jangaien orde elikagaiak jatea. Hipokratesek zioen bezela: Janaria zure elikagaia izan dadila eta elikagaia zure sendagaia.

Tabu or not tabu

Tabu hitzak pisu handia dauka psikologian eta psikoterapien. Ez dugu zalantza egiten hagineta mina duenari dentistarengana joateko gomenatzen diogu?



arrate garitaonandia

PSIKOLOGOA/PSIKOTERAPEUTA

galera bat dela-eta, dueluarekin zailtasunak dituenen? Psikologoarengana joateko gomenatzen diogu?

Egia esan, oraindik ere buru-gaixotasunaren lorratza edo aztarna da ("erotasuna", diagnostiko-etiketak, trastornoak, patologia) psikologiak, eta zehatzago esanda, psikologia klinikoak daukan karga eta farde-la. Lorratz honek bizirik jarraitzen du inkontziente kolektibon, film, autolaguntza-liburu, telebista, eta internet bezalakoetan agertzen diren estereotipoekin batera.

Lotsa tabuari lotuta dago. Batzutan ez da adierazten baina barru-barruan egoten da. Kritikari, epiaketari beldurra.



Familiarteko leloak ("arazoak etxean gelditzen dira", "denborak dena sendatzen du", "trapu zikinak etxean garbitzen dira") idatzi gabe dauden mandamentuak dira, leialki jarraitzen diren aginduak.

Zorionez praxi onarekin, heziketa-zentruetako dibertsitatearen naturalizazioarekin eta

adierazpen emozionalaren eta prebentzioaren sustapenarekin mito, estereotipo eta tabu asko desagertzen doaz. Elementu horiei esker guraso asko konturatzen dira zenbait aspektu ere jorratu behar direla etorkizunean euren seme-alaben osasunean egon daitezkeen ondorioak prebenitzeko.

Eibar vs Real Madrid bihar Ipuruan

Eibar FT-k sasoi onean segitzen du eta Anoetan ere ondo merezitako puntua urratu zuen. Martitzenean jokaturako partiduan gehiago izan zen Mendilibarren taldea, batez ere lehen zatian, eta jokalaria bat gutxiagorekin ere ez zuen amorerik eman, horrela 93. minutuan berdinketa lortu arte. Epailearen erabaki okerrak kaleratu bazuen Lejeune atzelariaren auzia dela-eta, Eibarrek helegitea jarri du zigorra kendu eta Real Madrilaren aurka jokatzeko aukera izan dezan. Madrilgo taldeak, bestalde, ez ditu bere unerik gozozenak bizi azken partiduetan eta izandako hankasartzeek lidergoa galtzera eraman dute. Biharko partidua 16:15ean jokatu da eta, orain arte Real Madril garaitezina izan bazaie ere, gogoratzekoa da eibartarrek berdindu egin zutela lehen itzulian Bernabeun jokaturako partiduan. Ea partidu bakoitzeko Cristianok ziurtatuta duen penalti jaurtiketa horretatik libratzen garen oraingoan!



Ttatt gimnasioak bost domina eskuratu zituen Espainiakoan

Aurreko asteburuan Madrilaren jokaturako Wushu Espainiako txapelketan gure herriko Ttatt gimnasioko sei ordezkari hartu zuten parte Euskadiko selekzioarekin. Iñigo Arizaga kenduta (6. izan zen 75 kilora arteko Sanda modalitatean), beste guztiak dominekin itzuli ziren Eibarrera. Sulei Samadik (-65, Sanda) eta Chelo Najerak (-60, Sanda) urrezkoa irabazi zuten, Andoni Morgadek (kontakatu erdia, Qingda) zilarrezkoa eta Sergio Osuak (-70, Sanda) eta Ibai Gomez juniorrak (kontakatu erdia, Qingda) brontzezkoa. Han izan ziren ere, aurrekoak moduan Ramon Quinak prestatuta, Asier Cuesta (-60, Sanda) eta Martin Las Heras juniorra (-75, Qingda) erakusketa egiten.

Eski irteera 18/19ko astebururako

Klub Deportiboko eski batzordeak irteera antolatuko du hilaren 18 eta 19ko astebururako. LHko 5. eta 6. mailetako eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleek iraupen eskia egin ahal izango dute Somporten, Triton aterpetxean ostatu hartuta. 18 urtetik gorakoek, bestalde, Astunen praktikatu ahal izango dute eski alpinoa eta hango Hotelean hartuko dute atsedena. Batzuen zein besteendako prezioa berbera izango da: 80 euro. Helduen kasuan bidaia, ostalua eta gosaria izango dira barne, eta haurrei dagokienez, bidaia, ostalua pentsio erdian, forfata, monitorea eta alokairua sartuko dira prezio horretan. Izena eguazten eta eguenetan eman daiteke Klub Deportiboko bulegoetan (20:00-21:00) edo 943-201904 telefono zenbakira deituta. Informazio gehiagorako: eski@deporeibar.com

Junior mailako XL. Udaberri Memoriala Unai Irizarrentzat izan zen

Limousin-Kartoiak Oriako taldeko txirrindularia nagusitu zen domeka goizean jokaturako junior mailako proban. 85 parte-hartzaile izan zituen Eibarko Txirrindularitza Elkarteak antolatutako 78 kilometroko lasterketak eta Xabier Mikel Azparrenek (Ampo) eta Jokin Sarasolak (Alvaro Construcciones) osatu zuten podiuma. Irabazleak lehiakortasun saria ere bereganatu zuen, Sarasola hirugarren sailkatua Mendiko sarian nagusitu zen eta taldekako sailkapena Amporentzat izan zen. Eibarko lehena, bestalde, Ciclos Iturriagako Jon Astigarraga izan zen.

ten 17 taldeetatik, Eibarkoa laugarren izan zen. Bihar Ereñon izango dute hurrengo erronka eta etzi Asteasun.

Debut ona Zumaian

Klub Deportiboko Eibar Energia Hiria Debabarrena taldeak, bestalde, borroka eman zuen Zumaian jokaturako elite-23 urtetik azpiko mailako lehen proban, taldeko gehienak debutariak izan arren. Aldro Team taldeko Amarikak esprintean irabazitako proban Organbidek 9. amaitu zuen eta, lasterketan parte hartu zu-



ANDONI ARGOITIA URKIOLA IV. URTEURRENA (2013-II-28)

Beti izango zara gure artean

ZURE FAMILIA



**IÑAKI UGARTEBURU****Kirola eta balioak**

Askotan entzuten dugu kirolak balio positiboak dituela pertsonen formaziorako. Ez dut zalantzarik esateko horrela izan daitekeela askotan, baina zoritxarrez kasu guztietan ez da horrela izaten. Kirola tresna egokia izan daiteke hezkuntzarako, formaziorako, gizarteratzeko... baina beti ere egoki erabiltzen bada. Entrenatzaile edo monitorearen figura oso garrantzitsua da; erreferente bihurtu daiteke ikasle eta kirolarientzat, ematen dituen mezuengatik, garaipen edo porroten aurrean hartzen duen jarreragatik, gatazkak kudeatzeko duen moduagatik, etabar. Baina balioak transmititzeko beste modu asko daude. Gustokoa ditut Asier Cuevasek, Abel Barriolak, Naroa Agirrek edo Maialen Chourrautek erakusten duten jarrera eta transmititzen dituzten balioak. Dударik gabe erreferenteak dira, eta erreferente egokiak. Baina beste hainbat kasutan, kirol lehiaketa batzuetan ikusten dena egin behar ez denaren erakusle da: doping-a erabiltzen denean, epaileari aurre egiten zaionean, joko zikina erabiltzen denean edo tranpak egiten direnean. Sarriegi ikusten ditugu eredu txar horien adibideak, zuzenean edo telebistan, eta kasu hauetan erakusten dena ez da positiboa. Kirol praktika, kirol taldea bizitza-eskola da, eta bertan, bizitzan bezala, eredu egokiak eta desegokiak aurkituko ditugu. Guraso, entrenadore, monitore eta lagunena lana da bereizten erakustea zein eredu jarraitu eta zein baztertu. Kirolak, berez, ez du baliorik.

Deporreko atletek emaitza bikainak lortu zituzten Espainiako, Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan

Orain dela asteburu bi Odei Jainagak Getxon jokaturako Euskadiko txapelketan eskuratu-tako markatik aparte, jabalinaren erreinua eibartarrena dela erakutsi zuten berriro ere. Andoni Egurrolak eta Jone de Castrok lortutako urrezko dominekin batera, kadete mailako podiuma osatu zuten Carlitou Mendyk, Mikel Martinezek eta Ekain Egurrolak, hirurak Eibarko Klub Deportibokoak, eta maila berean Garoa Magunazelaia ere urrea irabazi zuen.

Belodromoan jokaturako Gipuzkoako txapelketan, bestalde, Mendyk urrezko hiru domina bereganatu zituen (luzera jauzia, pisu jaurtiketa eta 60 metro hesiak). Zilarrezkoa eskuratu zuten Maialen Martinezek (altuera) eta Aratz Morak (pisua), eta brontzezkoa Andoni Garballo (luzera eta 200 metro) eta Garoa Magunazelaia (pisua).

Eta Hernanin jokaturako eskola mailako Gipuzkoako kros txapelketan, Unax Amorrosta (5. alebinetan) eta Gorka Kareaga eta Maddi Tejada (11. eta 14., hurrenez hurren, infantiletan) izan ziren Eibarko ordezkari onenak.

Bost domina azken asteburuan

Aurreko asteburuan, bestalde, zapatuan jokaturako Euskadiko txapelketetan Klub Deportiboko ordezkariak hiru domina lortu zituzten: Aratz Morak urrezkoa kadeteetako pisu jaurtiketan, Andoni Cabalgok zilarrezkoa jubenetako



Mendy, Martinez eta Egurrola, hirurak Deporrekoak, kadete mailako podiuma osatu zuten Getxon.

200 metrotan eta Igor Kruzelaegik brontzezkoa kadeteetako 300 metrotan. Eta domekan, Leonen jokaturako Espainiako jaurtiketa luzeen txapelketan, bi domina ekarri zituzten Eibarrera: Carlitou Mendyk zilarrezkoa irabazi zuen kadeteetan eta Jone de Castrok brontzezkoa juniorretan. Azken txapelketa horietan Andoni Egurrola 4. izan zen juniorretan eta Mikel Martinez 5. kadeteetan.

Kadeteak lider eta emakumezkoak bigarren waterpoloko Euskal Herriko ligan txapelketan

Denboraldi bikaina egiten dihardute Davide Cerchik prestatzen dituen Urbateko talde guztiek, maila bakoitzean egonkortzeaz gain gehienak goiko postuen bila borrokan dabilta-eta. Gizonezkoen

talde nagusia, esaterako, mailari eusteko azken denboraldietako larritasunak ahaztuta, saiklapeneko erdi aldean dago (6., 12ren artean), hori azken jardunaldian Irunen Oiasorekin 11-8 galdu eta gero. 2.

Mailan jokatzeko duen filiala ere 5. da 10 taldek osatzen duten multzoan, Jol Sologaituaren eskutik azken jardunaldian Sestaori 12-5 nagusitu ondoren. Aurten debutatu duen emakumezkoen taldeak, bestalde, bikain jarraitzen du eta bere multzoko 2. postuari eusten dio, WP 98 02 taldearengatik garaipen bakarrera.

Harrobian urrats bat behera eginda, kadete mailako taldeak oraindik ez daki partidurik galtzea zer den eta saiklapeneko goi-goian jarraitzen du: azken jardunaldian 11-8 nagusitu zitzaion WP Navarrari. Talde gazteena, infantil mistoena, bosgarren da saiklapeneko gaur egun.



Urbateko taldeak irabaztera ohitu dira denboraldi honetan.

28 urtean TVEko "Al filo de lo imposible" abenturetako dokumentala zuzendu zuen. Berak dioen moduan, "200 abentura eta 350 dokumental" bildu zituen arrakasta handiko programa horretan. "Horrelako ikus-entzunezko fenomenorik ez da izan munduan" sinestuta, orain dela 20 urteko telebista gaur egungoaren parean handia zela esaten digu: "Akaso ni neu izango naiz beste denbora batekoa". Datorren martitzenean, hilaren 7an, hitzaldia eskainiko du Portalean, Klub Deportiboak antolatutako Mendi Jardunaldien barruan.



Sebastián Álvaro
(mendizale eta abenturazalea):

"Ez dago abenturarik arriskurik gabe, baina hobe burua lagun izatea"

– *"Una vida al filo" du izen-buru martitzenean eskainiko duzun hitzaldiak. Nondik nora joko duzu bertan?*

Bizi dudanaren ibilbide sentimentala egitea gustatuko litzaidake, heldutasunagatik egindako hausnarketa. Eraman eta partekatu dudan bizitza kontatzeaz gain, horren nigan laga duen arrastoa komunikatu nahiko nuke. Gutako bakoitzari geratzen zaigun sentimendua emozio zehatzarena delako. Hainbeste borrokatu ondoren, gairitu zaituzten alaitasunak, guztiz bete zaituzten uneak eta, zergatik ez, tristura bat edo beste ere zure parte dira. Sentimendu horiek adierazterakoan, jakina, errazagoak egiten zaizkit une ezin alaiagoak gogorra ekartzea tristeagoak direnak baino; azken horiek aipatzea bera ere zaila izaten da. Mugan bizitzeak hori dakar: partekatutako lagunak eta, aldi berean, galdu nituen beste batzuk. Baina horrelako hausnarketak egiterakoan konturatzen zara espedizio handienek ere denborekin irabazi egiten dutela, tarte horrek neurri egokiena ematen dielako. Hori bai, men-

diko hitzaldi tekniko bat entzuterakoan doan dezepzionatuta irtingo du; beste zeozer gustatuko litzaidake eskaintzea.

– *Hausnarketarako tarte hartzeaz gainera, ez zaitugu irudikatzen proiektu berrietan murgildu gabe...*

Eta ondo asmatzen duzue, bai. Aktibo jarraitzen dudalako, oso. Baina ez dut nahi izaten espedizioetan bakarrik zentratzea eta, aldiz, hainbat proiektuen artean mugitzen naiz. Hobe esateko: proiektu haundi bakar batean, hainbat ikuspuntutik eta beste hainbat arlo baten dituen proiektu erraldoian. Horrekin batera, urtero hiru-lau espedizio egitea ez dut barkatzen. Zertan dihardudan zehatz-mehatz ez dizuet esango: nahiago dut egin eta gero kontatu kontrakoa egitea baino.

– *Zuri pixka bat jarraituta, askotan azpimarratu duzu alpinismoa buru kontua dela gehiago giharrarena baino...*

Ez da alpinismo kontua bakarrik; fubolerako gauza bera esango nizueke. Eta bizitzarako! Horrekin konturatu ez dena larri dabil! Prozesu neurozientifiko bati jarraitu behar izaten

diogu gure errealitatean eta gure gorputzak ez du garunak agintzen dionari jarraitu besterik. Eta, edozer gauzetan murgiltzen garela ere, hobe dugu inteligentzia erabiltzea. Bonatti, Malori... horrelako mendizaleak erraldoiak badira burua erabili dutelako dira, bakoitzaren abildadeak direnak izanda ere.

– *Zure abenturetan larregi arriskatu duzun sentsazioz izan duzu inoiz?*

Orokorrean hartuta, behar zen arriskua hartu dudalakoan nago, hau da, neurrian jokatu dudala. Askotan, beti ez esatearren, pasatzen zaizu burutik ez bueltatzeko aukera hor dagoe. Komenigarria uste dut, gainera, horrela izatea. Baina ez dago abenturarik arriskurik gabe. Hala ere, ez dago abentura handiagorik bizitza bera baino, eta hor ere ausartu egin behar da bat, eta arriskatu ere bai askotan. Gurea joko bat baino ez da, guk aukeratu duguna, eta hor sartzen da abentura bakoitzetik etxera itzultzeko asmoa. Gailurra lortzea bezain garrantzitsua da, edo gehiago, etxera bueltatzea. Ez itzultzea izango zen porrota.

– *Badakigu 8.000korik ez duzula zapaldu, eta horrelakoen bila ere ez zarela ibili. Zein izan da lortu duzun altuera nagusiena?*

7.300 metroan izan naiz, Everesteko hegomendebaldeko horman, eta baita K2koan. Baina gustokoen artean dut, esaterako, 1981ean Hidden Peak-era (Gasherbrum I) kamararekin joan nintzenekoa, orduko baliabideekin zailtasun handikoa egiten zitzagun-eta.

– *Zelan ikusten duzu gaur egungo alpinismoa? Mendia merkaturatu egin duzu?*

Orain ere denetarik dago. Hiru urte izango dira tarteko adinoko Kanadako bi lagunekin topo egin nuela K6an, 7.000 metroko eremu birjinean 2.600 metroko ibilbide berria zabalitzen zihardutela. Hara eramandako guztia ekarri zuten eurekin, izotz-iltzerik han laga gabe. Everest, aldiz, handiusteen zirkoa bihurtu dute egun. Nire aldetik, Juanjo San Sebastian eta Ramon Portilla lagun ditudala, zailtasun alpinismoa egiten saiatzen naiz. Zer bilatzen du dan? Bakardadea, isiltasuna, adiskidetasuna eta elkartasuna.

“Pikadero” filma Eibarko Korrika Kulturalean



“Pikadero” (2015) euskerazko filmaren proiektzioa antolatu dute domekarako, Eibarko 20. Korrika Kulturalean harira, 19:00etan Biharriaren-en (Ubitxa, 16-18). Ben Sharrock-ek zuzendutako lanak 99 minutuko iraupena dauka eta Barbara Goenaga, Joseba Usabiaga, Zorion Egileor, Itziar Lazkano, Lander Otaola eta Pedro Arnaez aktoreak agertzen dira. Kontatzen duten istorioak, bestalde, drama eta komedia nahasten ditu: Espainia estutzen duen krisi

ekonomikoaren ondorioz, gurasoen habia utzi ezinik dabil bikote gazte bat. Dirurik gabe, arazo larriak dituzte gurasoen etxean ezkontza-eginbideak betetzeko. Larrua jotzeko gero eta grinatsuago eta hotel bat ordaintzeko dirurik gabe, elkargune publikoak bilatu behar dituzte, “txortalekuak”. Baina gauzak ez dira diruditen bezain errazak, eta haien harremana kolokan jarriko da amiltzen ari den ekonomia batetik askatzen ahalegintzen direnean...

MARTXOAK 8



2017
EIBARREN

N. Garridoren “Eyes” izango da Martxoaren 8-ko irudia

Natalie Garrido Acebes eibarrak irabazi du “Emakumea eta Artea” gaiari jarraituta Eibarko Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak, Emakumeen Mahaia-aren, Arrate Kultur Elkartearen eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen laguntzarekin, Martxoaren 8aren harira antolatu duen lehiaketa, “Eyes” izeneko lanarekin. Lehiaketara aurkeztu diren karretekin erakusketa egingo dute Portalean, martxoaren 8tik 26ra eta saria banatzeko ekitaldia erakusketa aretoan izango da, martxoaren 8an, 13:00etan. Irabazleak herriko dendetan gastatzeko 400 euroko balioa duen txartela jasoko du.

Aratosteetako Lehiaketa

Aurreko urteotako martxari jarraituta, aurten ere Aratosteetako lehiaketa antolatu dugu, ...eta kitto! astekarian publizitatea jarri duten tabernen artean gehien gustatu zaizuen Facebooken bozkatzeko. Irabazlea Iraider Garcia Deza izan da eta berak eramango ditu ...eta kitto!-ko bi kamisetak. Saridunak Ez Dok tabernari eman dio botoa (taberna horrek jaso du bozka gehien). Eskerrik asko parte hartu duzuen guztiei eta zorionak irabazleari!

Juan de los Toyosi buruzko dokumentala estreinatuko da gaur Coliseo antzokian

Untzagako “Casa del Pueblo” alderdi sozialistaren egoitzak 100 urte bete dituela gogoratzeko antolatutako egitarauaren barruan, gaur 19:00etan “Juan de los Toyos. El soñador que trabajó por un sueño” dokumentalaren estreinaldia hartuko du Coliseo antzokiak. Ekitaldia Eibarko Sozialistek antolatu dute, UGT sindikatuarekin eta Juan de los Toyos Fundazioarekin elkarlanean eta sarrera librea izango da, toki guztiak bete arte. Gaur estreinatuko duten dokumentaleko protagonista oso pertsonaia esanguratsua izan da Eibarko zein euskal sozialismoarentzat eta, sindikalgintzan ez ezik, lehen Eusko Jaurilaritzan bete zuen Lan Sailburu kargutik ere langileen eskubideen alde lanean eman zuen bizitza eta, horregatik, jende guztia ikustera joatera animatu nahi dute antolatzaileek.



Antzerki Jardunaldiak omendu ditu Eibar FT-k

Aurreko zapatuan, Eibar eta Malaga taldeen arteko norgehiagokan, aurten 40. Edizioa betetzen duten Eibarko Antzerki Jardunaldien antolatzaileei omenaldia egin zioten: atsedenaldea aprobetxatuta, Juan Ortegak plaka oroigarria jaso zuen Ipuruako palkoan, Amaia Gorostiza Eibar Kirol Elkarteko presidentearen eta Miguel de los Toyos alkatearen eskutik. Horrekin batera, aurten egitaraua osatzeko orduan Eibar K.E.-ren Fundazioak zuzenean lagundu nahi izan du, Borobil Teatro taldearen “Jokoz Kanpo” (apirilaren 6an, 20:30ean Coliseoan) / “Fuera de juego” (apirilaren 5ean, 20:30ean Coliseo) antzezlanaren bi funtzioak ordainduta.





Ipuin musikatua gaur Topalekuan

Gaur arratsaldean, 19:00etan "Hotzikara ipuin erotikoak", helduendako ipuin musikatua eskainiko dute Ines Bengoak (ahotsa) eta Iosu Lizarragak (musika) Topalekuan. Ipuin-kontalariak berak esandakoaren arabera, "ikuskitzen honek sexua beste modu batean tratatzeko aukera ematen du, umore klabean eta komunikabideetan maiz agertzen diren topikoengandik aldentuz. Oso lan dibertigarria da, umorea da nagusi eta sexuaren inguruko ikuspuntu eta esperientzia ezberdinak kontatzen ditugu. Musika eta literatura erabiltzen ditugu sei istorio kontatzeko eta, egia esan, musikak istorioen esanahia sakondu egiten du". Euskeraz izango den emanaldia Andretxea-Berdintasun Zerbitzuak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta Arrate Kultur Elkarteak elkarlanean antolatuta dute, Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira prestatu den egitarauaren barruan. Sarrera doan izango da.

Ipuin Kontalaria

Lur Korta-k aurkezten du
Ipuin dantza

Martxoak 4, larunbata
arratsaldeko 6etan
Sarrera dohainik

Juan San Martin Liburutegian

+3 urte

"Ipuin dantza" bihar arratsaldean

Bihar arratsaldean, 18:00etatik aurrera "Ipuin dantza" kontakizuna eskainiko du Lur Kortak umeen liburutegian, Zapatuko Ipuina egitasmoaren barruan egingo den saioan. Lur Kortak betidanik istorioak kontatu, antzestu eta bizitzeko grina izan du eta zaletasun horren eraginez, antzezle, ipuin kontalari eta antzerki irakasle dihardu. Kontatuko duen ipuina 3 urtetik gorako umeentzat egokia da: "Aurorita bere maletarekin doa, ipuin berezi eta jostagarriak ditu bertan, abentura bat baino gehiago ditu zuretzat prest. Zatoz entzun eta parte hartzera". Sarrera doan izango da.

Landabasoren lana Harixa Emoten



Martitzenean idazlearekin Harixa Emoten irakurketa klubaren saio berri bat hartuko du Juan San Martin liburutegiak, 19:00etatik aurrera. Oraingoan Goizalde Landabasorekin "Babeserako kopia" (Elkar, 2015) lanari buruz berba egiteko aukera izango dute irakurleek. Kazetari bilbotarrak, segurtasun kopia bailitzan, bere memoria, oroitzapen, iragan, amodio, beldur eta bestelako poema bilduma osatu zuen datorren astean aztertuko duten liburua.



Verdiren "Il Trovatore" Coliseoan

Bihar arratsaldean, 19:00etan Giuseppe Verdiren "Il Trovatore" operaren proiektzioa emango dute Coliseo antzokian (2. aretoa), Version Digital Diferidos-en eskutik (11 euro, 9 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Londresko "Royal Opera House"-etik eskainiko den lanak 3 orduko iraupena dauka (hiru ekitalditan zatituta).

ARGAZKI DIGITAL LEHIAKETA
"Eibar aldeko euskara hiztegia"

Kaixolia Amarauna

Begiratu: <http://eibarko-euskara.eus/hiztegia>

Argazki Digital Lehiaketa

Udalak, Udal Euskaltegiak eta AEK-k antolatutako Eibar aldeko euskara hiztegiaren inguruko argazki digital lehiaketara lanak aurkezteko epea amaituta, jendeak interneten bozkatzekoa zabaldu dute gaur (martxoaren 12ra arte). Botoa emateko www.eibarko-euskara.eus helbidera sartu behar da.

"Hileko pieza" Museoan




Martxoan hasita, Armagintzaren Museoak hilero piezaren bat aukeratu du, horren historia eta ezaugarriak aztertu ondoren ikusgai ipintzeko asmoz. "Hilabeteko pieza" deitu duten proiektua abiatzeko aukeratu duten pieza Pablo Sarasuak damaskinatutako anfora ederra izan da.

Poesia, musika eta dantza batera

Martxoaren 17an, 20:30ean "Grito de Mujer", Nazioarteko Poesia eta Arte Jaialdiaren 7.



edizioaren harira, Coliseoan poesia, musika eta dantza batuko dituen ekitaldia eskainiko dute. Maite Lorenzok antolatu eta ArgazkilarHitzak koordinatu duen ikuskizunean jende askoren partehartzea izango da.



martxoaren 3tik 10era arte

XV. Giza Irudien Erakustaldia

3an (barixakua), 17:00

T. Etxebarrian eta Untzagan



ANTZEZLEAK: Karen Valderrama, Damian Fiore, Maria Villata, Fco. Aguado, Jorge Balmaseda

Giza irudiak arte urbanoaren beste adierazpen mota bat dira, baliabide oso egokia artista gazte, bohemio eta autodidaktak euren sentimenduak kaleratzeko. Arte hori menperatzeko pazientzia eta oreka fisikoa behar dira.

“Bajo el ala del sombrero” (Pentación)

5ean (domeka), 20:30

Coliseoan / 12 euro / MUSIKALA

ANTZEZLEAK: Juan Valderrama, Anabel Beloso
ZUZENDARITZA: Pepe Gamboa

2004an hildako Juan Valderrama abeslariaren historia kontatzen duen funtzioak musika, testua, ikus-entzunezkoak eta haren testimonioak batzen ditu. Lan atipikoa da, hainbat dokumentu eta adierazpenekin egindakoa. Kopla eta flamenkoaren bidetik egindako bidaiak beste sasoi batera eramaten gaitu.



“Encuentro con J.M. Flotats”

6an (astelehena), 19:00

Coliseoan / Doan / HITZALDIA



AURKEZLEA: Juan Ortega
KOORDINATZAILEA: Juan Velazquez

Aurtengo edizioako irekiera hitzaldia eskainiko duen egileak Estrasburgoko Arte Dramatikoko Goi Mailako Eskolan egin zituen ikasketa nagusiak antzezle eta zuzendari izateko eta, kondekorazioen artean, Mitterrandek ezarritako Chevalier de la Legion d'Honneur ere jasotakoa da.

“Serlo o no...” (Taller 75/Teatre Lliure)

7an (martitena), 20:30 / 80 minutu

Coliseoan / 15 euro / KOMEDIA

ANTZEZLEAK: Josep Maria Flotats, Arnau Puig
ZUZENDARITZA: J.M. Flotats

Asmo, jakinduria eta sinesmen antagonikoa duten bi bizilagunen arteko solasaldia -euretako bat judutarra-. Konpromiso etiko, moral eta soziala norberarekin, ezagunekin eta ezezagunekin, hizkuntzarekin, kulturarekin edo historiarekin bilatzen duen hausnarketarako ariketa.



“Los Malditos” (Unahoramenos Producciones)

9an (eguna), 20:30 / 75 minutu

Coliseoan / 12 euro / DRAMA



ANTZEZLEAK: Gustavo Saffores, Emilio Buale, Soraya del Rosario
ZUZENDARITZA: Mario Vega

Giza migrazioen drama gako poliziakoan garatzen duen ikus-entzunezko lanean, Beethovenen maisuaren 9. sinfonian oinarritutako soinu bandak girotuta, euren lurraldea laga eta ahultasun handienez mugak gurutzatzen dituzten madarikatuak dira benetako protagonistak.



Debabarreneko Orfeoia ELGOIBARREN

Jose Miguel Laskurainek zuzentzen duen Orfeoia estreinekoz jardungo du Elgoibarren gaur, 20:30etik aurrera Herriko Antzokian eskainiko duen emanaldian. Iazko azaroan Coliseoan egindakoaren bidetik, Debabarreneko Orkestra Sinfonikoak lagunduko dio Orfeoiari eta gaurkoan gonbidatu bereziak ere izango dituzte: Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolako eta Bergarako Musika Eskolako Orkestrako ikasleak. Sarrerak 10 euro balio du (19:30etik aurrera leihatilan salgai).



Andaluziako jaialdia ERMUAN

Ermuko Andaluziako Kultur Zentruak antolatuta, bihar arratsaldean, 16:00etatik aurrera musika eta dantza jaialdia egingo da Ermua Antzokian, Andaluziako Eguna (otsailak 28) ospatzeko.



DJ Gaua ELGETAN

Biharko DJ Gaua antolatu dute Elgetako 13 Spaloia Kafe Antzokian, Alex TC (Zornotza / Elektrik Rekords / Codigo4), Koldo Loira (Ondarru / Codigo4) eta Xuban Laiño (Ondarru / Codigo4) disko-jartzaileekin. Gaueko 23:00etatik 04:00etara iraungo duen jaialdirako sarrera doan izango da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Nati Usieto Salas. 90 urte. 2017-II-23.
- Mertxe Moreno Onandia. 2017-II-23.
- Concha Sendin Hernandez. 84 urte. 2017-II-23.
- Ana Otelain Madalbide. 85 urte. 2017-II-24.
- Sinda Grande Novoa. 87 urte. 2017-II-24.
- Natividad Garcia Garcia. 88 urte. 2017-II-24.
- Valentina Rosete Marban. 94 urte. 2017-II-25.
- Joseba Zinkunegi Garmendia. 50 urte. 2017-II-26.
- Ignacio Gisasola Solozabal. 90 urte. 2017-II-27.
- Luis M^a Barinaga Izar de la Fuente. 88 urte. 2017-II-27.
- Jose Urdangarin Zurutuza. 90 urte. 2017-II-27.
- Liborio Zabaleta Balerdi. 89 urte. 2017-II-27.
- Maritxu Mugerza Goxencia. 98 urte. 2017-II-28.

jaiotakoak

- Alaitz Atxa Gisasola. 2017-II-18.
- Xabi Bilbao Arrate. 2017-II-20.
- Ekhi Iparragirre Gardoki. 2017-II-21.
- Izan Ruiz Bergara. 2017-II-25.
- Eneko Prieto Oregi. 2017-II-25.

farmaziak

- Barixakua 3
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 4
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Domeka 5
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Astelehena 6
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 7
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguaztena 8
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguena 9
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 10
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2017AN-
Mandiola (S. Agustin, 3)

SUDOKUA

	2				5	
		6	4			7
		3	5		8	9
	3		7	1		
	7	1		5	4	
	8		3	7		
	7	5		8	3	
6				1	4	
	3					8

9	7	2	3	6	8	4	1	5
5	8	1	2	4	7	9	6	3
4	3	6	9	5	1	8	7	2
8	4	7	1	2	5	6	3	9
3	6	5	7	8	9	1	2	4
1	2	9	4	3	6	5	8	7
2	5	4	6	1	3	7	9	8
6	9	8	5	7	2	3	4	1
7	1	3	8	9	4	2	5	6

AURREKOAREN
EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 3

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00. XV. Giza Irudien Erakustaldia (MPC).
Untzagan eta T. Etxebarrian.

IPUIN MUSIKATUA

19:00. Helduentzat:
"Hotzikara ipuin erotikoak".
Ahotsa: Ines Bengoa.
Musika: Iosu Lizarraga.
Doan. Topalekuan.

DOKUMENTALA

19:00. "Juan de los Toyos. El soñador que trabajó por un sueño". Coliseoan.

ZINE-FORUMA

19:00. "La vida en rosa"
Olivier Dahan-en filma.
Pagatxaren eskutik. Doan.
Portalean.

Zapatua 4

ADOSGUNEA

10:00. Maiatzaren 7ra begira, galdera adosteko saio irekia, Zelai Nikolas eta Mario Zubiagak gidatuta.
Eibarko Gure Esku Dagok deituta. Arrate Kultur Elkarteon.

ASTELENA HAUR PARKEA

10:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelena frontoian.

IREKI

11:30/14:00. Ireki ekimenaren inguruko sinadurak biltzeko mahaia. Untzagan.
15:00/19:30. Ipuruan.

HARRERA HIRIA

12:00. Eibarrek harrera hiria izateko duen konpromisoa berriz adierazteko Amnistia Internacionalek antolatutako ekitaldia. Alkatearen eta erakundeko ordezkarien partehartzearekin.
Txalaparta eta sinadura batzea. Untzagan.

GAZTELEKUA

17:00. "Gaztetxe" lehiaketa. Indianokuan.

UMEENDAKO ZINEA

17:30. "Paw Patrol. Alas (a salvo sobre cubierta)".
Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Ipuin dantza",
Lur Kortaren eskutik.
Umeen liburutegian.

Domeka 5

KALEJIRA

11:00. Usartza Txistulari Taldearen kalejira, Azitainetik abiatuta, Untzagaraino.

KIROLA FAMILIAN

17:30. Ipurua kiroldegian.

KORRIKA KULTURALA

19:00. 20. Korrika Kulturala Eibarren: "Pikadero" filma.
Biharrian-en (Ubitxa, 16-18).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Bajo el ala del sombrero" (Pentacion).
Coliseoan.

Astlehena 6

IKASTEN

16:00. Sendabelarren Foroa: "Udaberri-lorea eta ezpela". Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00. Irekiera-hitzaldia:
"Encuentro con J. M. Flotats". Coliseoan.

Martitzena 7

IKASTEN

10:00. "Dolua eta mina II" hitzaldia, Adindu-ko Elena Iraolagoitiaren eskutik.
Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra.
Portalean.

HITZALDIA

17:00. 65 urtetik gorakoei eta menpekotasunen bat dutenei janaria etxera eramateko zerbitzuari buruzkoa. Untzagako jubilatutuek.

EMAKUMEEN HISTORIA

18:30. "Emakumeen Historia: Dolores Ibarruri".
Leticia Martinez-Alcocerren eskutik. Sarrera librea.
Portalean (ikastaro gelan).

MENDI JARDUNALDIAK

19:00. "Una vida Al Filo" hitzaldia, Sebastian Alvaroren eskutik. Klub Deportiboko Mendi Taldeak antolatuta. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19:00. Idazlearekin Harixa Emoten irakurketa kluba:
"Babeserako kopia",
Goizalde Landabasorekin.
J. San Martin liburutegian.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Serlo o no..."
(Taller 75/Teatre Lliure).
Coliseoan.

Eguaztena 8

IKASTEN

09:41. Ibilaldia: Urkiola-Otxandio. Janaria eraman.
Durangora joateko trenaren irteera ordua, Estaziotik (09:43 Ardantzatik).

EMAKUMEEN EGUNA

13:00. Martxoaren 8aren inguruko kartel lehiaketako irabazleari saria banatzeko ekitaldia eta erakusketaren inaugurazioa. Portalean (erakusketa aretoan).
19:30. Flashmoba.
20:00. Elkarretaratzea. Untzagan.

HITZALDIA

17:30. 65 urtetik gorakoei eta menpekotasunen bat dutenei janaria etxera eramateko zerbitzuari buruzkoa. Urkiko jubilatutuek etxean.

GURASOAK MARTXAN

18:00. "Comunicación y resolución de conflictos en la vida real y digital" hitzaldia, Baikaroko Garbiñe Arrizabalagaren eskutik. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 9

IKASTEN

10:00. "Ur-bilatzaila" hitzaldia, Javier Petralandaren (Geobiologia eta Erradiestesian aditua) eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

17:45. Dantzaldia. Untzagako jubilatutuek.

KALERATZEAK STOP

19:00. Kaleratzeak Stop plataformako en bilera irekia. Portalean.

ERROPA BILKETA

19:00/20:30. Gure Esku Dagoren erropa bilketa, bigarren eskuko azokarako. Deporren.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Los malditos" (Unahoramos Producciones). Coliseoan.

Erakusketak

Martxoaren 5era arte: – "EIBAR MUNDO MOTOR" erakusketa. (*Armagintzaren Museoa*)

Martxoaren 12ra arte: – "EMAKUMEAK ETA ARTEA" erakusketa. (*Topalekuan*)

Martxoaren 26ra arte: – "RENDER" EDURNE MTNEZ. ARROYOREN erakusketa. (*Portalean*)
– "ARGIAREN IGAROBIDEA" ZALOA IPIÑAREN erakusketa. (*Portalean*)
– MARTXOAREN 8AREN INGURUKO KARTELEN erakusketa. (*Portalean*)

Apirilaren 22ra arte: – "MIRADORES" LUCENA MORALEN argazkiak. (*El Corte Inglesean*)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, ANE, domekan zazpi urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat Eibarko aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, UNAI, aurreko domekan zortzi urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, astelehenian zazpi urte beteko dozuz-eta. Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, ASIER, atzo bi urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat Edurne, Xabat, Urko, aitxitxa, amama eta famelixakuen partez.



Zorionak, JUNE Amuategi: 7xan 7!!! Magia ipintzen dozu gure bizitzetan. Asko maite zaittugu. Etxeko guztien partez.



Zorionak, AIORA, etxeko artistiori, bixar zortzi urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat aitatxo, amatxo eta Oihenarten partez.



Zorionak, ALAIN, atzo zazpi urte egin zenduaz-en-eta. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ENARA, atzo urtiak bete zenduaz-en-eta. 10 honezkeron!!! Patxo haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, JON, bixar urtetxua egingo dozu-eta. Patxo haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JARE, bixar urtetxua beteko dozu-eta. Musu asko famelixaren partez.



Zorionak, ENEKO, atzo 11 urte bete zenduaz-en-eta. Segi holan. Etxekuen partez.



Zorionak, ANE, astelehenian hiru urte beteko dozuz-eta. Patxo eta besarkada haundixa danon eta, batez be, Ikerren partez.



Zorionak, AITOR (bixar sei urte egingo dozuz) eta GARI (aurreko zapatuan hiru bete zenduaz-en). Patxo potolo bana, txapeldunok, famelixa guztiaren partez.

Zorionak, BEÑAT eta MAIALEN, zuen 8. eta 11. urtebetetzietan. Laztan erraldoi bana danon partetik.



zineaColiseoan

(1 ARETOAN)


4an: 17:00, 19:45, 22:30 (Antz)

5ean: 20:00

6an: 20:30 (Antzokia)

"Fences"

Zuzendaria: D. Washington



(1 ARETOAN)

4an: 22:30

5ean: 17:00

6an: 20:30

"Lo que de verdad importa"

Zuzendaria: Paco Arango



(2 ARETOAN)

4an: 19:45 (Antzokia), 22:30

5ean: 20:00

6an: 20:30

"Logan"

Zuzendaria: James Mangold



(ANTZOKIAN)

4an: 17:00

5ean: 17:00 (2 Aretoa)

"La vida de Calabacín"

Zuzendaria: Claude Barras





Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Urkizun pisua salgai. Tel. 617-329239.
- Pisua salgai Txaitxa-Zelai kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 6. solairua, igogailuarekin. Terraza eta garbata. Tel. 665-733954 eta 629-449646.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar erdialdean. Tel. 637-004773.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-778839.
- 2/3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia saldu edo alokatuko nuke Untzaga inguruan. Plaza batekoa eta trasteroarekin. Tel. 656-733131.
- Lokala salgai Urkizu dorreetan. 85 m². Prezio interesgarria. Deitu 17:00etatik 20:00etara. Tel. 606-773886.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Ego-Gain kalean. Tel. 660-312431.
- Garajea alokagai Ego-Gainen. Tel. 685-710962.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-444649.
- Erizain-laguntzaile tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-226039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-436462.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-402030.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065633.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Interna. Tel. 631-613245.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-562461.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-907807.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita baserrietan ere. Tel. 632-776905.
- Neska eskaintzen da goizez dendari jarduteko, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 697-891070.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 633-101852 eta 631-282203.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Esperientzia. Orduka. Tel. 602-490595.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 678-814941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Orduka. Tel. 677-700968.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-266877. Eva.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-057185 eta 648-039187.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Tel. 603-386326.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Esperientzia. Tel. 657-831093.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 604-302842.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 630-837736.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 671-329852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-498697.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-737903.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 653-156403.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 689-571882.
- Emakumea eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-151806. Maria Elena.
- Gizona eskaintzen da nagusiak orduka zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 650-513412.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 695-917617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-765929.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-001567.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 680-981704.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 631-418130.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Pres-tasun osoa. Tel. 602-123942.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 622-684289.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-573554.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 692-345215.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 689-798284.
- Neska euskalduna eskaintzen da pegorak eta sodedeak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Eibarko neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 610-096417.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-841158.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-658703.

4.2. Langile bila

- Nagusiak zaintzeko pertsona arduratsua behar da Eibarren goiz eta arratsaldean. Ezinbestekoa profesionaltasun ziurtagiria edo geriatria laguntzaile titulazioa. Tel. 600-831698.
- Neska/mutil euskalduna behar da umeak arratsaldean bi orduz zaintzeko. Tel. 628-240923.- Sukalde-laguntzailea behar da Eibarren asteburuetarako. Bidali curriculum-a. 279 posta-kutxatila.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailerako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Kuma zuria salgai, osagai guztiak. Berria eta egoera onean. 90 euro. Tel. 687-675484.
- Masajerako aulkia salgai. Motorrekin. Egoera onean. Eta baita pandero profesionala ere. Tel. 943-702654 eta 678-856525.
- Kotxa-kapota, aulkia eta "traveller"-a salgai. Zakuak opari. Tel. 669-293415.
- Mini-sehaska (Mutsy markakoa) salgai. Baita kotxearendako silak: 0-1 eta 2-5 urte tarterako (Recaro markakoak). Tel. 669-293415.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA


- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak



CAMBRIDGE ENGLISH

Language Assessment

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

MARTXOKO DEIALDIA
AZTERKETAK Eibarren, Arrasaten eta Durangon

MATRIKULAK
Martxoaren 6tik 23ra

	AZTERKETA DATAK	
STARTERS	Ekainaren 10ean (larunbata) AZTERKETA OSOA	
MOVERS	Ekainaren 10ean (larunbata) AZTERKETA OSOA	
FLYERS	Ekainaren 10ean (larunbata) AZTERKETA OSOA	
KET (FOR SCHOOLS)	(PAPERS 1,2,3) Ekainaren 3an (larunbata)	(SPEAKING) Ekainaren 2tik 11ra arte
PET (FOR SCHOOLS)	(PAPERS 1,2,3) Ekainaren 3an (larunbata)	(SPEAKING) Ekainaren 2tik 11ra arte
FCE	(PAPERS 1,2,3,4) Ekainaren 3an (larunbata)	(SPEAKING) Maiatzaren 26tik ekainaren 11ra arte
CAE	(PAPERS 1,2,3,4) Ekainaren 3an (larunbata)	(SPEAKING) Maiatzaren 19tik ekainaren 4ra arte
CPE	(PAPERS 1,2,3,4) Ekainaren 8an (osteguna)	(SPEAKING) Maiatzaren 26tik ekainaren 11ra arte
PET	(PAPERS 1,2,3) Maiatzaren 26an (ostirala)	(SPEAKING) Maiatzaren 19tik 28ra arte
FCE FS	(PAPERS 1,2,3,4) Ekainaren 10ean (larunbata)	(SPEAKING) Ekainaren 2tik 11ra arte
FCE	(PAPERS 1,2,3,4) Ekainaren 24an (larunbata)	(SPEAKING) Ekainaren 16tik 25era arte
CAE	(PAPERS 1,2,3,4) Ekainaren 24an (larunbata)	(SPEAKING) Ekainaren 16tik 25era arte

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

ARRASATE: Parlance943 77 06 83
Idiomaster943 79 07 84

BERGARA: Espolon School of English943 76 03 53

EIBAR: Anglo-American943 20 01 08
Link Idiomas943 20 39 59

ERMUA: Akerlei943 17 66 32

ELGOIBAR: Kensington School of English ..943 74 02 36
Key Academia de Inglés943 74 30 44

OÑATI: Academia Sheila Fritz943 78 20 91

ONDARROA: Howdy96 683 23 79

DEBA: Akabi943 19 16 79
North Street English943 19 25 00
San Jose Maristak94 681 00 58

DURANGO: Akabi943 75 50 55

MENDARO: Chatterbox94 616 96 39

MARKINA: Ontrack Hizkuntza94 658 46 73

ELORRIO: Speak up94 622 52 94

BERRIZ: Golden Gate.....943 86 50 20

ZUMAIA: Gogoz943 60 43 58

MUTRIKU:

35 urte
tik
gora LTZ ofizial gisa

Etxe-Lan

www.etxe-lan.com

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK / ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA OSTALARITZAKO,
GARBITEGIETARAKO ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO MAKINEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30





Asko dira

gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com